

## **Jolas eta Letren Terrazak zabaldu dituzte gaur Getxo udalerrian**

Gaur, astelehenarekin, Letren Terrazak zabaldu ditu Getxoko Udalak. Ekimen horren bitartez, gaztetxoek eta helduek liburuez gozatzeko aukera izango dute, udal liburutegiek udalerriko hiru plazetan jarritako etxoletan. Horiek abuztuaren 26ra arte egongo dira zabalik Areetako Xake eta Algortako Borobia plazetan. Telletxekoa, berriz, hilaren 27an Iturgitxi plazara eramango dute, irailaren 2ra arte. Terrazak astelehenetik ostiralera egongo dira zabalik ondoko ordutegian: 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. Horrela, udal liburutegien arduradunek hautatutako eleberriak, ipuinak, komikiak eta abar, izango dituzte eskura terrazetara hurbildutakoek. Azken finean, udarako eta, bereziki haurrentzat aproposak diren irakurgaiak kaleratzea da ekimen horren helburu nagusia, arduradunek adierazi dutenez. Argazkian, iaz Areetako Xake plazan kokatutako terraza.

Udako liburutegiez gain, Getxoko Joko eta Letren Terrazak aisialdirako guneak dira eta bertan hurrek irakurtzea eta beste hainbat jarduera uztar ditzakete egun osoan zehar, hainbat begiralez gainbegiratuta. Aurten, liburutegiek eskaintza hori bultzatu nahi dute astelehenetik ostiralera eta, hori dela eta, zenbait jarduera izango dira: eskulan-tailerrak, antzinako jokoak eta mahai-jokoak.